

{ datorrena } Iñaki Soto

Hegoafrikara begiratzuz gero, begiratu zurien borrokari

S arriegi, Mendebaldeko prozesu askatzaileei buruzko literaturan –igual dio iritzi artikulua bat edo ponentzia bat izan–, beltzen segregazioari buruzko aipamenak eta hauek gure borrokekin omen duten funtsik gabeko lotura zuzenak azaltzen dira. Baita gure artean ere, noski. “Big Lebowski”-ko Walter Sobchak-en «harreman zuzena dago» esaldia gogora etortzen zait holakoetan.

Adibidez, noizbait aipatu dut, Euskal Herrian gertatutako segregazio politikoa –batez ere ilegalizazio prozesuen bidez milaka herritarren eskubide zibil eta politikoen urraketa suposatu zuena–, guztiz salagarri eta tamalgarria izan arren, ezin dela Hegoafrikako *apartheid* sistemarekin konparatu. Ziur asko, euskal auzian tortura da mundu mailan bere horretan azpimarragarria den auzi bakarra. Tamalez, askapen prozesu horien artean, euskal herritarrei sistematikoki egindako tortura da ranking anker horretan lehiatu dezakeen auzi bakarra.

Internazionalismoa eta inspirazio militantea oso garrantzitsuak dira mugimendu askatzaileentzat. Eredugarriak diren borrokak eta borrokalariak ezagutzea eta haien irakaspenak kontuan hartzea beti izango da onuragarria, nola ez. Esajerazioa eta iruzurra, ordea, zeharo arriskutsuak dira, bai desbideraketa ideologikoa ekar dezaketelako, bai idealismoa bere adierarik txarrean sustatzen dutelako. Garaipenerako aukerak eta are eta borrokarako aukerak ere zailtzen dituzte. Erreduktionismoa ere hor nonbait sortzen da: «gauza (txar) guztiak gauza berbera dira», mailaketarik gabe. Hortik eratoritzen den eskema politiko binarista, absolutua eta printzipialista (ona eta txarra ehuneko ehunekotan banatzen dituen), politikatik baino gehiago du moraletik. Aipatu dugunez, hortik sektarismora bi minutu daude.

Gure borroka legitimatuko duten eredu bilaketa, borrokari ez baizik eta borrokalari eredu garrien baldintzei begiratzeko zaie sarri. Hartara, ginkana moral horretan, borroka funtsa ez da askapenaren alde urratsak eman dituen horren eredu jarraitzea, baizik eta zapalkuntzarik latzena eta multifaktorialena duen gizon edo emakumea bilatzea. Gure posizioak legitimatzeko, betiere. Gainera, bilaketa antzu horretan, ergel batekin egin

dezakegu topo, izan ere zapaldua izateak ez baitu zapaldua ez izateko ez desioa eta are gutxiago estrategia, gaitasuna edo grina berekin ekartzen. Logika horri jarraituz, printzipioz zapaldua ez izateak ez zaitu zapaltzaile bihurtzen. Engel eta Marx horren adibide dira.

Horregatik, moratoria gisa, Rosa Parks, Nelson Mandela eta enparauak lasai uztea proposatzen dut. Ez dut ez aipatzeko eskatzen, inondik inora, baizik eta gure eguneroko auzi bitxiekin ez konparatzeko, ez bada auzion artean dagoen alde nabarmena aipatzeko. Izan ere, horregatik dira hain eredu garriak, komunak ez direlako, milioien artean bakarrak direlako. Bibotea margotuta ere, edonor ez da Nietzsche, zin dagizuet.

JOE SLOVO, GURE LAGUNA DA; RUTH FIRST, GURE LAGUNA DA...

Ereduen bila hasita, gu, maila batean edo bestean, kategoria batean edo bestean pribilegiatuak garenok, egitate

Moratoria gisa, Rosa Parks, Nelson Mandela eta enparauak lasai uztea proposatzen dut. Ez dut ez aipatzeko eskatzen, inondik inora, baizik eta gure eguneroko auzi bitxiekin ez konparatzeko

simple hau onartzearekin batera, badugu nora begiratu. Adibidez, berdintasunaren alde eta segregazioaren aurkako borrokan, Hegoafrikako militante zuriek egindako borroka aztertzea benetan interesgarria iruditzen zait. Alderdi Komunista, South African Congress of Democrats (ANCekin adostuta soilik zuriek osatu zutena), aurrerago sortuko zen United Democratic Front-a (Black Consciousness Movement-arekin bat ez zetorrena mistoa izateagatik) edo boikota egiteko mundu anglosaxoian sortu zen *apartheid*-aren aurkako mugimendua, adibidez, eredu garriak dira beren praktika politikoan eta guretzat bereziki interesgarriak dira beren gogoetetan.

Joe Slovo, Ruth First edo Ronnie Kasrils-en borroka balio nagusia ez baita jaiotzez zituzten pribilegioei uko egitea, baizik eta pribilegio horien aurka, berdintasunaren eta askatasunaren alde, bizitza osoan lan egitea. •